



LEURTZAKO BASOA PR-NA 102

DISTANTZIA	9,690 Km	Bidea mendi bizkarretik doa, batez ere, basotik. Bideak Leurtzako arroa mugatzen du. Ibilbidean zehar honakoak ezagutuko dira: Eltzaburuko galtzada, 1789ko mugarria, Erlaingo Harriko gurutzeta, Pittorzarreko trikuharria, Uztakortako usategiak, eta ikatza egiteko zenbait plaza. Bidea Munazorrotz mendiaren tontorrera igotzen da eta inguruneko eta Bidasoaldeko bista zoragarriak ditu. PR bezala balizatua (txuria-horia), ez du zailtasunik, baina lainoarekin adi egon behar da Exkelarreko larre irekietan.
DESNIBELA	390 m	
ZAILTASUNA	Erraza	
HASIERA	Leurtzako informazio etxola	

Hasiera (PK 0,000) Informazio etxola- 675 m: Aparkalekua gurutzatu eta pistatik eta aisialdi gunetik jarraitu (Adi: Puntu honetako iturria da ibilbidean dagoen bakarra).

Bidebanatzea (PK 0,220): Pista nagusia eskuinean utzi behar da eta ezkerretara jo behar da bide zabaletik (mugikortasun urria dutenentzako egokitua). Goiko urtegia pasa behar da, bertatik ia ibilbide osoaren perspektiba ikus daiteke, eta eskuinetara joan behar da, goiko urtegiko ertzetik; zati honetan bi urtegiak inguratzen dituen Tokiko Bidezidorrarekin bat eginen dugu. Pagadien arteko bide erosotik, iturri txiki batetik pasatuko gara eta Errekabeltz erreka igaroko dugu egurrezko pasabide batetik. Igoera arin baten ondoren...

Bidebanatzea (PK 1,040) eta mugarria eskuinean. Ezkerretara joko dugu parean Tokiko Bidezidorra utzita; hortik metro gutxira menhir bat topatuko dugu etzanda beste mugarri batekin batera. Igoera arin bat egin eta gero, bidegurutze batera helduko gara: Pista ezkerrean utziko dugu eta eskuinera joko dugu, igoera pixkanaka gogortzen doa Erlaingo Harriko mendi hegaletan zehar. Urrotz ("V) eta Beintza-Labaien bereizten dituzten zenbait mugarri pasatuko ditugu, baina antzinako galtzadako zenbait zati ere. Azkeneko zatian malda arintzen doa eta harrizko galtzadaren zenbait zati agertzen zaizkigu, garai bateko mandazainen, ikazkinen, tropen eta kontrabandisten ibileren lekukoa.

URROTZ ETA ELTZABURU LOTZEN DITUEN GALTZADA. Eltzaburu (Ultzama Harana) eta Urrotz (Malerreka) lotzen zituen bidearen aztarna ikusgarriena da. 120 metroko zati honetan galtzada bat eraikitzeke lanak ikus daitezke: Bidean harriak bertikalean paratzen ziren gurdiak lokatzean ez sartzeko eta ura kanalizatzen zen galtzada ez hondatzeko. Bidearen zati hau nahiko berria da: antza denez, XIX. mendearen erdialdean egokitu zen merkantziak bertatik pasatzen jarraitzeko, eta ez joateko Belateko errepide berritik. Eltzabururako bidean eta Leurtzarako jaitsieran galtzada zaharraren aztarnak ikus daitezke.

Zumardenako lepoa – 881 m. (PK 2,385): Igoeraren amaiera, Kantauri eta Mediterraneo itsasoaren isurialdeak banatzen dituen bizkarra da eta GR-12 "Euskal Herriko bidezidorra" igarotzen den lekua. Bidebanatzea: Eltzaburura doan bideak aurrera egiten du (>Hegoaldea), nahiz eta bide nagusiak eskuinera (>Mendebaldea) jarraitzen duen, ezkerretara (>Mendebaldea) joko dugu Belateko norabidean, GR12tik eta PRaren mendi-adar batetik. 20 metrora, hesiaren ondoan, 1789ko mugarria dago, mugarriak Urrotz, Beintza-Labaien eta Ultzama mugatzen ditu. Pista jarraitu eta jaisten hasiko gara, hesia gurutzatu aurretik, bidebanatzearen ondoan, ezkerrean utziko dugu ERLAINGO HARRIKO GURUTZEA,

gurutzea kareharri harkaitz baten gainean dago. Lehenagotik paratua zegoen beste gurutze baten erreplika da, Beintza-Labaiengo artzain baten omenez paratu zen, artzaina Eltzaburutik bueltatzerakoan elur-bisuts batek harrapatu zuen eta hil zen. Beste zenbait kroniken arabera, heriotza Lantzeko bidelapurrekin lotzen dute.

LANTZEKO BIDELAPURRAK. 12 lagun inguruk osatzen zuten taldea, horien artean Zenotz anaiak nabarmentzen ziren. Ingurune hau menperatu zuten 1810etik 1817ra eta, ibiltariei eta mandazainei lapurtzen zieten, 1813an horietako bat hil zuten. Azkenean, atxilotu, kondenatu eta Iruñean urkatu zituzten. Haien gorpuak Belateko inguruetan zehar txikitu eta sakabanatu zituzten. Haietako baten burua Erlaingo Harriko gurutzearen ondoan zintzilikatu zuten.

Bidebanatzea, gurutzearen ondoan (PK 2,550): Behera egiten duen pista eskuinean utziko dugu eta ezkerreara joko dugu igoera arin batetik, bide zabal eta eroso batetik.

PITTORTZARREKO TRIKUHARRIRA DESBIDERATZEA (PK 3,090 / 880 m): Ehiza postua duen pago handi baten ondoan, GR12a utziko dugu eta ezkerreara joanen gara Urrotz eta Ultzama banatzen dituen hesia gurutzatuta. 100 metro baino gutxiagora tumulu bat aurkituko dugu. Zumardenako Lepora bide beretik itzuliko gara.

Trikuharrria Brontzezko Aroaren (ka 1000-2000 urteen artean) hilobi monumentua da. Trikuharriek Lurrean zutik dituzte finkatuta hainbat harri, eta hauek estaltzeko, harlauzaz osatutako gaina dute. Bertan gorpu osoa ehortzen zuten eta gorpuarekin batera zenbait objektu sartzen zituzten, esaterako, lantzen puntak, zinginarriak... Sarrera ekialdera begira paratzen zuten, ondorioz, suposatzen da eguzkiarekin lotutako sinesmena zutela. Pittorzarreko trikuharria, atlantiar zonaldean kamararen goiko aldea mantentzen duen bakarrenetako bat da.

Zumardenako lepoa – 881 m (PK 3,925): Aurrera (>Mendebaldea) jarraituko dugu GR12arekin bat eginez, Eltzaburuko bidea ezkerrean utziko dugu eta eskuinean Leurtzara jaisten den bidea. Bidea laua eta zabala da, eta usategien ondotik pasatuko gara.

Uztakorta lepoa – 899 m (PK 4,965): Metro batzuk lehenago, ezkerrean ehiztarien etxola bat utziko dugu. Bidebanatzea: Ezkerrean, Orokietara (hego-mendebaldea) doan pista eta GR12 bidea (Ipar-mendebaldea); aurrez aurre (Iparraldean) Soratxipiko tontorrera doan bidea (30 min.) bizkarra jarraituz. Eskuinera joko dugu (Ipar-ekialdea) jaitsiera arin batean zehar (Kasu: GR bidearen baliza gorriak GR12 eta GR11ren loturari dagozkie eta PRrekin bat egiten du Askaldako bizkarreraino).

Bidebanatzea (PK 5,340): Jaisten den pista eskuinean utziko dugu eta ezkerreara igoko gara, beti ezkerretik joanen gara Soratxipiko ekialdeko mendi-hegalean mantenduz. Geroago, bidea arintzen doa eta antzina ikatza egiteko plazak ikusten ahal dira. Ia kilometro bata urrerago bidea estutzen da eta lurrean sartuta dauden harrien bitartez markatzen da bidea.

Exkelarreko bizkarra – 985 mts (P.K. 6,765): Basotik atera eta gero, larre zabalak ikusiko ditugu; ezkerrean (>Heg.) bizkarra Soratxipitik jaisten da. Bizkarretik jarraitu (>Ip-eki) behar dugu, bertatik bista asko ikusiko ditugu eta Munazorrotzeko tontorra aurrez aurre izanen dugu.

Exkelarreko lepoa – 970 m. (PK 7,125): Balizatuta ez dagoen zati batetik igotzen ahal da Munazorrotzeko tontorrera (1.021 m. eta mendiko postontzia du). Tontorrean Leurtza eta inguruko begiratokia dago. Bide beretik itzuliko gara leporaino (PK 7,825). Larreen artean dagoen bidetik (zenbaitetan ez dago sobera argi) jaitsiko gara (ekialderako norabidean), beti ondoko basoaren gainetik. Antzinako edanlekuaren ondotik pasa eta gero, bidea argiago ikusten da.

Askalda – 875 m (PK 8,300): Bidebanatzea, usategi baten eta alertzeen birpopulatze postu baten ondoan. Ezkerreara (>Ip-Eki), Beintza-Labaienerako bidean (GR eta PR balizak), eskuinera jaitsiko gara (>Heg-Mend) GRa utziz eta basoan sartuta. 300 bat metro eta gero, hesi bat pasatuko dugu, eta geroago, bigarren hesi bat.

Iñateko borda – 810 m (PK 8,860): Aziendarako borda eta ondoan artzainarentzako etxola. Bide zabaletik jaisten jarraituko dugu, iturri baten ondotik pasata.

Bidebanatzea (PK 9,290): Basotik atera eta gero eta Berraburuko Borda atzean utziko dugu. Aipatu dugun porlanezko bide zabala ezkerrean utziko dugu eta eskuinera jaitsiko gara iratzedi bat inguratuz.

Leurtza, Informazio etxola – 675 m. (PK 9,690): Jaitsiera Aisialdiko Gunean bukatzen da, sarbidea mugatzen duen katearen ondoan. Metro gutxira Leurtzako Informazio etxola dugu, ibilbidearen hasierako puntua.

LEURTZAKO BASOA PR-NA 102.1 LEURTZATIK BEINTZA-LABAIENERA

DISTANTZIA	4,910 Km	Leurtza eta Beintza-Labaien lotzen dituen bidea da, ikazkinen, garai batean, bide hau erabiltzen zuten. Askaldaraino igo behar da PR-NA 102etik. Jaitsiera bide aldapatsu batetik egin behar da eta harri asko ditu lurrian zehar aske.
DESNIBELA	+210 m / -440 m	
ZAILTASUNA	Ertaina	
HASIERA	Leurtzako Informazio etxola	

Hasiera (PK 0,000) Leurtzako informazio etxola -675 m.: Aparkalekutik eta sarbideko katea mugatzen duen tokitik eskuinera joko dugu, bide zabal eta maldatsu batetik. Iturri batetik pasa eta gero (bidean dagoen bakarra) Inateko Bordara (810 m. PK 0,830) helduko gara. Eskuinera joanen gara eta bi hesi pasatuko ditugu basora atera arte eta Askaldako bizkarrera (875 m. PK 1,390) heldu arte. Bidebanatzean, Munazorrotzera (PR-NA 102) igotzen den bidea ezkerrean utziko dugu eta aurrera egingen dugu (>Ip-Mend) bide lau batetik eta alertze batzuen ondotik.

PR eta GRaren balizak jarraituz (GR11 eta GR12aren lotura) eta ia altuerarik galdu gabe, pagaditik, Orrabitako lepora (868 m. PK2,240) helduko gara. Bide aldapatsu batetik jaitsi behar da, zati batzuetan bidea nahiko hondatua dago. Eredu honetan txilarrak, oteak, erkametzak eta bestelako landare eta arbolak daude. Hemendik Beintza-Labaienen bista zoragarriez disfrutatu daiteke. Amildegia bukaerara helduta, bidea zabaltzen da eta ehunka urte dituzten gaztainondoetatik doa bidea, Lizarrenea etxera heldu arte, bertatik sartzen da Beintza-Labaienera (440 m. PK4,910).

BIDE OSOA EGIN NAHI BADUZU (16,730 KM.): Ibilbideak erraketa baten forma du. Beintza-Labaienetik Orrabita eta Askaldara igo behar da, Uztakorta eta Zumardenatik jarraitu behar da Leurtzaraino. Beintza-Labaienera bide beretik itzuli behar da.